ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko uztailaren 1a, astelehena • 73 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

**Zerbitzua bide publikoan emateko kutxazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2024an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita zerbitzua bide publikoan emateko kutxazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2024an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluarekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa horiek ordaintzeko epea 2024ko irailaren 11tik azaroaren 11ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 19an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*
*JON ARMENTIA FRUCTUOSO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.07.01 05:36:55 Z